

# 1. AURRETIK

## SAILKAPENA:

### 1.1 Elkar ezagutzeko jolasak.

#### IZENA:

Gurpil bikoitza.

#### HELBURUA:

Taldea osatzea, talde kideak ezagutzea, kohesioa lantzea edota gai jakin bat bizipen pertsonalen bitartez aztertzea.

#### DENBORA:

15 minutu.

#### LEKUA:

Espazio diafanoa beharko dugu bi gurpil osatzeko.

#### TALDEAREN BALDINTZAK

Pertsona kopurua: 10 gutxienez/40 gehienez.

Taldearen egoera: ezezagunen artean egiteko aproposa.

#### AZALPENA:

Taldeko kide guztiak gelan zutik daudela, pertsona kopuru berdineko bi biribil egingo ditugu. Biribil bat kanpoan geldituko da eta horren barruan bestea, elkarri begira. Musika martxosoa jarriko dugu eta denak ibiltzen hasiko dira, biribil bakoitza norabide batean. Une jakin batean musika isildu egingo dugu, eta une horretan taldekide guztiak gelditu egin beharko dute. Kopuru berdineko taldeak direnez, taldekide bakoitzari pertsona bat egokituko zaio parean, eta pertsona horrek, honako hau kontatuko dio:

-Zer espero duzu gaurko saiotik?

Bukatu ondoren, musika jarri eta bi biribilak berriz ibiltzen hasiko dira.

Ariketa berriz errepikatuko dugu, baina hurrengo bi aldietan kontatu beharrekoa aldatuz joango gara:

- Zeri diozu beldurra? Zerk pozten zaitu?

#### MATERIALA:

Musika martxosoa.

#### OHARRAK:

#### ITURRIA:

Ezezaguna.